

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

URKABUSTAIZKO UDALA

2026an Urkabustaiz udalerriko herrietako herriko jaiak norgehiagoka-prozeduraren bidez antolatzeko dirulaguntza

BDNS(Identif.): 896202.

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/896202>).

Lehenengoa. Erakunde onuradunak

Urkabustaizko udalerrian legeztatu eta erregistratuta dauden toki-erakunde txikiak izan daitezke dirulaguntza hauen onuradun.

Bigarrena. Diruz lagungarri diren programak

Herriko jaiak eta/edo erromeriak sustatzea Urkabustaizko udalerrian.

Kultura- eta kirol-jarduerak, aisialdikoak eta elkartasun-, tolerantzia- eta genero-berdintasunaren balioak sustatzen dituztenak.

Ez dira diruz lagunduko lunch, afari edo antzekoei dagozkien gastuak.

Hirugarrena. Oinarria arautzaileak

Dirulaguntza hauek emateko oinarri arautzaileak Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. eta 70.2 artikuluetan jasota daude.

Dirulaguntza hauek norgehiagoka bidez emango dira. Horretarako, aurkeztutako eskabideak erkatuko dira, deialdi honetan ezarritako balorazio-irizpideen arabera eskabide horien arteko erlazioa ezartzeko. Horretarako, helburu horretarako aurrekontu-partidan ezarritako muga erabiliko da.

Laugarrena. Laguntzak banatzeko irizpidea eta zenbatekoa

Deialdi honen arabera aurkeztutako eskabideen ondorioz ematen diren laguntzen finantzaketa 3380434000 aurrekontu-aplikazioari egotziko zaio, 2025erako aurrekontuko "Dirulaguntza finkoak- Administrazio Batzarrak" kontzeptupean.

Dirulaguntza zehazteko eta dirulaguntzaren zenbatekoa finkatzeko balorazio-irizpidea honako hau izango da:

Zenbatekoa honako hauen arabera aztertuko da: egindako eskaerak, erakunde eskatzaileko biztanle-kopurua eta aurrekontu-partidaren zuzkidura.

1. Aurrekontua dirulaguntza eskatzen duten batzordeen artean banatuko da, formula hau erabiliz:

$$X = \text{Aurrekontu-partidaren zenbatekoa (PZ)} \times \text{Eskatzaileak haztatze faktorea (HF)} \text{ zati eskatzaileak haztatze faktore guztien batura (FB)}.$$

Biztanle kopurua (1-500) Haztatzea: 0,25.

Biztanle kopurua (501- 1.000) Haztatzea: 0,50.

Biztanle kopurua (1.001-1.500) Haztatzea: 0,75.

Biztanle kopurua (1.501-2.000) Haztatzea: 1.

Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa, bakarrik edo beste erakunde batzuen beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin batera, ezin izango da izan elkarte edo erakunde onuradunak garatu beharreko jardueraren kostua baino handiagoa.

Onartutako dirulaguntza berrikusi ahal izango da, gastuaren finantzaketa beste erakunde batzuen laguntzen ekarpen osagarrien bidez ezagutu ondoren, bai eta, hala badagokio, bestelako diru-sarreraren bidez ere.

Bosgarrena. Eskakerak aurkezteko epea

Eskabideak eta zazpigarren oinarrian eskatutako agiriak aurkezteko epea: 2026ko abenduaren 16an bukatuko da. Epez kanpo aurkeztutako eskabideak ez dira kontuan hartuko.

Eskaera eta dokumentazioa udalaren sarrera-erregistroan aurkeztuko dira, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan adierazitako edozein bide erabiliz.

Seigarrena. Dokumentazioa

1. Eskabide ofiziala, behar bezala beteta eta sinatuta.

2. Diruz lagundutako jarduera edo jarduerak egiteak eragindako gastuen egiaztagiriak: fakturak edo froga-balioa eta baliokidea duten kontabilitate-agiriak: jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak.

Gastuen justifikazio gisa ez dira onartuko honako datu hauek argi identifikatuta ez dituzten ordainagiriak, fakturak, tiketak eta abar:

— Jaulkitzailea, bere izena edo sozietatearen izena eta NAN edo IFZ.

— Hartzailea, sozietatearen izena eta IFZ (dirulaguntzaren erakunde onuradunarekin bat etorri behar du).

— Gastuaren xedea.

— Data.

— BEZa: aplikatutako zerga-mota (k).

3. Programen aleak, non Urkabustaizko Udalaren babesa aipatuko den.

Izarra, 2026ko martxoaren 30a

Alkatea

XABIER ÁLVAREZ DE ARCAJA FERNÁNDEZ DE LANDA